

## BERGARAKO UDALA

### ELEKTRIKARIEN BRIGADARAKO ARDURADUNA KONTRATATZEKO DEIALDIA

**JAKINARAZTEN** da 2017ko otsailaren 23an Alkate andreak hurrengo dekretu hau eman duela:

"Begarako udalak elektrikari arduraduna kontratatzeke deialdia egin du.

Deialdian parte hartzeko izena eman dutenen eskaerak eta dokumentazioa aztertu eta onartuen eta baztertuen zerrenda onartzea erabaki zuen alkateak emandako dekretu bidez.

Baztertuak izateko arrazoia izan da eskatutako titulazioaren baliokidea ez dutela aurkeztu.

Baztertuak izan diren hainbat izangaik erabakiaren aurkako erreklamazioa aurkeztu dute.

Honako hauek dira erreklamazioa aurkeztu dutenak eta aurkeztu duten titulazioa:

4. H. V. B.: "*Técnico Superior en Sistemas de Regulación y Control de Automatismos*".
5. I. B. A.: "*Sistemas de Regulación y Control Automático*"
6. J. Z. J.: "*Sistemas de Regulación y Control Automáticos*".

Kontuan izanda deialdia arautzen duten oinarrien arabera izangaiek bete beharreko baldintza beste batzuen artean hau dela:

*"Goi mailako teknikaria sistema elektrotekniko eta automatizatuetan, edo elektrizitate arloko pareko edo elektrizitate arloko maila altuagoko titulazioa izatea*" / "*Estar en posesión del título de técnico superior en sistemas electrotécnicos y automatizados, o titulación equivalente o superior del ámbito de electricidad*".

Kontuan izanda goian aipatutako izangaien titulazioek ez dutela aukerarik ematen instalazio elektrikoak sinatzeko edo instalatzaile bezala erregistratuta izateko.

Kontuan izanda, halaber, Eusko Jaurlaritzako Industria Saitetik egiaztatu dutenaren arabera horrek adierazten duela elektrizitate-alarrean titulazio horiek ez direla baliokideak eta, beraz, lanpostu honek eskatzen dituen egitekoei eta ardurei erantzuteko gaitasun profesionalik ez dutela ematen, eta, horrenbestez, ezin direla onartu deialdian parte hartzeko.

Honen aurrean, **ERABAKI DUT**

LEHENEA: H. V. B., I. B. A. eta J. Z. J. jaunek aurkeztu duten erreklamazioa ez onartzea.

BIGARRENA: Obra eta Zerbitzuetako elektrikarien brigadarako, aldi baterako eta txandakako kontratuarekin, elektrikarien arduraduna kontratatzeke deialdiaren barruan, onartutako eta baztertutako izangaien behin-betiko zerrenda hau onartzea:

<u>ONARTUAK:</u>
NAN
44168947T
11913243W
72458844N
30657536P
15399141C

<u>BAZTERTUAK:</u>
NAN
72455963Y
15397864P
72458606G
45168538B
72504626R
72514280H
44342303M
72572912T
72727666X
72498048R
15389711C

Sistema elektrotekniko eta automatizatueta goi mailako teknikariaren titulaziorik ez izateagatik, edo elektrizitate-arloko pareko edo elektrizitate-arloko maila altuagoko titulaziorik ez izateagatik.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri ematea H. V. B., I. B. A. eta J. Z. J. jaunei, eta udaleko web-orrian eta udaleko iragarki taulan.”

Ebazpenaren aurkako bideak

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakezu, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea duzu, jakinarazpen hau jasotzen duzun hurrengo egunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatzian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar dezakezu erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena jasotzen duzun hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Dena den, egoki deritzozun beste edozein errekurtsu ere jar dezakezu.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Bergara, 2017ko otsailaren 23a.  
IDAZKARIAK



**BERGARAKO UDALA**

**ELEKTRIKARIEN BRIGADARAKO ARDURADUNA KONTRATATZEKO  
DEIALDIA**

**Oharra:**

2017ko Martxoaren 2an deitutako froga oinarrietan jasotako ariketa teorikoa izango da.

Beraz, praktikoa noiz egingo den egun horretan jakinaraziko da.

Begara, 2017ko otsailaren 23a.  
IDAZKARIAK

